


15 eta 34 urte bitarteko Euskadiko hamar gaztetik seik Internet bidezko erosketak egin dituzte 2018an

2018an Internet erabiltzen duten 15 eta 34 urte bitarteko gazteen % 59,1ek galdetu aurreko hiru hilabeteetan Internet bidez erosketaren bat egin dutela diote.

Internet bidez erosketak egiten dituzten adin horretako gazteen ehunekoak bikoiztu egin da azken hamar urteotan: 2008an % 25,7 ziren eta 2018an % 59,1 dira.

Aurreko hiru hilabeteetan Internet bidezko erosketak egin dituzten 15 eta 34 urte bitarteko Internet erabiltzaileen ehunekoaren bilakaera (%)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Eustaten datuak oinarri hartuta (*Informazioaren Gizarteari buruzko Inkesta, IGIF*)

Internet bidez erosketak egiten dituzten adin horretako emakume eta gizonen ehunekoak oso antzekoak dira: 2018an emakumeen % 59,7 eta gizonen % 58,7. Baina aldeak ageri dira erositako produktu edo zerbitzuetan.

Emakumeek gizonak baino gehiago erosten dituzte Internet bidez kirol-materiala edo arropa, etxerako produktuak eta elikagaiak. Adin horretako gizonak emakumeek baino gehiago erosten dituzte Internet bidez ikuskizunetako sarrerak, elektronikako produktuak, informatika-materiala eta autoak, motorrak edo horietarako osagarriak.

2018an, galdetu aurreko hiru hilabeteetan, horrelako produktu edo zerbitzuak Internet bidez erosi duten 15 eta 34 urte bitarteko Interneten erabiltzaileak (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Eustaten datuak oinarri hartuta (IGIF)